



A M I A

Gure enpresaren asmoa, gure sehaskak estatu osoan zehar zabaltzea izango da batik bat bezero ezberdinengana iristeko. Izan ere, Pikler pedagogaren metodologia gaur egun mundu guztian zehar ezaguna da eta gure produktua zehazki metodologia horretan oinarritzen dira. Nahiz eta estatu guztira zabaltzea, enpresa berria denez, lehendabizi gure inguruan saltzen hasiko gara eta ondoren, egonkortasuna izaten hasten garenean, gure enpresa beste autonomia erkidego batzuetara zabaltzeko dugu.

Gure enpresaren bezeroen segmentazioari dagokionez, merkatu-nitxoak izango da, non gure bezeroak hurrekin egoten diren profilak izango diren, hala nola, gurasoak edota haur hezitzaile/irakasleak teknologia berrietan sinisten dutenak - bertara egokituak egongo baitira gure sehaskak-. Beste hitz batzuetan esanda, gure bezeroen batzuetan besteko adina 25 eta 45 urte bitarteko pertsonen artean egongo da. Horrez gain, honako produktuak haur eskoletan edo etxe desberdinetan egongo dira.

Jakinda gure sehaskaren berezitasun nagusia motorduna izatea dela, gure bezeroak gailu teknologikoetara ohituta egoteaz gain, hauengan sinisten dutenak izango dira. Gainera, oso garrantzitsua izango da beraientzat baliabide asko murrizten zaizkielako, adibidez, gurasoak etxean daudela lo lasai egiteko aukera izango dute, haurra ikusi dezaketelako sehaskako kamararen bitartez.

Bestetik, berriz, hezitzailearen kasuan ere, berari lana errazten zaio. Izan ere, motorrei laguntzaz, hezitzaileak bere lana erraztu dezake aldi berean ikasle bat baino gehiago lokartu ahal izateko.

Gure bezeroek gure sehaska erosteko orduan Pikler metodologia ezagutu eta jarraituko dute, haurren mugimendu libre eta autonomoan oinarritzen dena. Sehaska honek haurraren ongizatea ahalbidetzen du, horregatik oinarri berdina izango du, nahiz eta motor edo kamarak gehitu.

Piklerren jarraitzaileek, Pikler sehaskaren ideia berdina izango dute, sehaskaren esentzia zaindu dugulako bere estetika berdin mantenduz, nahiz eta teknologia berriaren produktu bat izan.